



EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

VII. plangintzaldia (2023 – 2027)

PLAN ESTRATÉGICO DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA

VII período de planificación (2023 – 2027)





AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. Sarrera	
Índice	3
I.- VII. plangintzaldiaren ardatzak	
Ejes del VII período de planificación	5
1. Eragin eremua	
Ámbito de aplicación	6
2. Eragin epea	
Período de vigencia	6
3. Xede Nagusia	
Objetivo principal	6
4. Helburu estrategikoak	
Objetivos estratégicos	6
5. Oinarrizko ardatzak	
Principios fundamentales	7
6. Derrigortasun indizea	
Índice de preceptividad.....	7
7. Berariazko hizkuntza-prestakuntza	
Formación lingüística especializada	8
8. Antolakuntza egitura	
Estructura organizativa	8
9. Baliabideak	
Recursos	10
II.- Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak	
Criterios de uso de las lenguas oficiales	12
III.- HE eta DD ezartzeko irizpideak	
Criterios para la asignación de PLs y FP's	43
IV.- Planaren jardun eremuak, adierazleak eta ekintza plana	
Ámbitos de actuación, indicadores y plan de acción	48
V.- Eranskinak	
Anexos	92
A.- 2023ko diagnostiko kuantitatiboa	
Diagnóstico cuantitativo 2023	93
B.- 2023ko diagnostiko kualitatiboa	
Diagnóstico cualitativo 2023	99



SARRERA

EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean oinarrituta, Euskara Zerbitzuak “*Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa – VII. plangintzaldia 2023-2027*” dokumentua prestatu du bere onespenerako.

Barakaldoko Udalbatzari dagokio plan estrategiko hau onartzea. Ondoren, udal erakunde autonomoetara bidaliko da, erakunde bakoitzeko gobernu-organoak, egoki baderitzo, plan honekin bat egin dezan.

Barakaldoko Udalaren Erabilera planari atxikitu ezean, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoa aintzat hartuta, erakunde autonomoek euskara, gaztelania bezala, zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango dela bermatu beharko dute, eta, horretarako, euren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategiko propioa sortu eta onartu beharko dute, legediak aurreikusten dituen urrats guztiak emanda.

Bestalde, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak hizkuntza-normalkuntzarako neurriak hartzeko beharra aurreikusten du. Honela, aipatu Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian jasotzen denaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak bi hizkuntza ofizialak zerbitzu-hizkuntza modura bermatzera behartuta daude eta, ondorioz, helburu hori lortzeko dokumentu honetan jasotzen diren jarraibideak betetzera.

INTRODUCCIÓN

En base al Decreto 86/1997, de 15 de abril, que rige el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones locales de la CAV, así como la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, el Servicio de Euskera ha elaborado, para su aprobación, el documento “*Plan Estratégico del Ayuntamiento de Barakaldo para la Normalización del Uso del Euskera – VII período de planificación 2023-2027*”.

La aprobación de este plan estratégico corresponde al Pleno Municipal. Posteriormente, se enviará a los organismos autónomos municipales para que los correspondientes órganos de gobierno, si lo estiman oportuno, suscriban el plan.

En caso de no acogerse al Plan de Uso del Ayuntamiento de Barakaldo, teniendo en consideración lo dispuesto en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, los organismos autónomos deberán garantizar que el euskera, al igual que el castellano, sea lengua de servicio y de trabajo, para lo cual deberán elaborar y aprobar su propio Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera, dando todos los pasos previstos en la legislación.

Por otra parte, en lo concerniente a los organismos públicos regidos por el derecho privado, el Decreto 86/1997, de 15 de abril, prevé la obligación de que los mismos adopten medidas tendentes a la normalización lingüística. Así, según lo establecido en la disposición adicional cuarta del citado Decreto, los organismos públicos de derecho privado están obligados a garantizar la utilización de ambas lenguas oficiales como lengua de servicio y, consecuentemente, a cumplir las directrices recogidas en este documento para la consecución de dicho objetivo.



Horrez gain, 123/2008 Dekretuak, uztailaren 1ekoak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoak, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua (2003-12-23) garatzen duenak, bere 38. artikuluan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dutela xedatu, eta nola egingo den zehazten du.

Asimismo, el Decreto 123/2008, de 1 de julio, de derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, que desarrolla el Estatuto sobre las personas consumidoras y usuarias (23-11-2003), establece en su artículo 38 que las entidades públicas de derecho privado garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en las relaciones con las personas consumidoras y usuarias, concretando cómo ha de producirse dicha presencia.



I.- VII. PLANGINTZALDIAREN ARDATZAK (2023 – 2027)

I.- EJES DEL VII PERÍODO DE PLANIFICACIÓN (2023 – 2027)





1. Eragin eremua

Plan honen eragin-eremua Barakaldoko Udala da.

2. Eragin epea

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren eragin-aldia plana Barakaldoko Udalaren Osoko Bilkurak onetsi, eta 2027ko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

3. Xede nagusia

Plan estrategiko honen xede nagusia Barakaldoko Udalak artatzen dituen administratuen hizkuntza-eskubideak bermatzea da, hau da, Barakaldoko Udalaren zerbitzu guztietan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak berdintasunez erabiltzeko eskubidea errespetatuko dela ziurtatzea.

4. Helburu estrategikoak

- Barakaldoko Udalak administratuekin dituen harremanetan, ahoz zein idatziz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera-berdintasuna bermatzea, hizkuntza bietan kalitateko zerbitzua eskainita.
- Barakaldoko Udala osatzen duten langile zein arduradun politikoen hizkuntza-gaitasuna –euskaraz– handitzea.
- Barakaldoko Udalak bi hizkuntza ofizialen kudeaketan jarrera proaktiboa eta eredugarria hartzea.

1. Ámbito de aplicación

El ámbito de aplicación del presente plan lo constituye el Ayuntamiento de Barakaldo.

2. Período de vigencia

El período de vigencia del Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera se extenderá desde el momento de su aprobación por el Ayuntamiento en Pleno hasta el 31 de diciembre de 2027.

3. Objetivo principal

El objetivo principal de este Plan estratégico es garantizar los derechos lingüísticos de los y las administrados/as atendidos/as por el Ayuntamiento de Barakaldo, es decir, garantizar el derecho a utilizar en condiciones de igualdad las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi en todos los servicios del Ayuntamiento de Barakaldo.

4. Objetivos estratégicos

- Garantizar la igualdad de oportunidades en el uso de las dos lenguas oficiales, tanto de modo oral como escrito, en las relaciones del Ayuntamiento de Barakaldo con la ciudadanía, ofertando en ambas lenguas un servicio de calidad en todos los ámbitos.
- Aumentar la capacitación lingüística en euskera del personal –trabajadores/as y responsables políticos– que conforma el Ayuntamiento de Barakaldo.
- Adoptar por parte del Ayuntamiento de Barakaldo una actitud ejemplar y proactiva en la gestión de las dos



lenguas oficiales.

- Erakunde euskara lan-hizkuntza gisa ere erabiltzeko urratsak ematea.

- Dar pasos para que el euskera sea también lengua de trabajo en la entidad.

5. Oinarrizko ardatzak

Hiru izango dira erabilera-planaren oinarrizko ardatzak:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak, haien hizkuntza-hautua beti errespetatuta eta inolako deserosotasunik eragin gabe.
- Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen kudeaketa egokia bermatzeko jarraibide nagusiak Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak izango dira.
- Ezarritako helburuak lortze aldera, Barakaldoko Udaleko langileen eta arduradun politikoen hizkuntza-trebakuntza lehenetsiko da.

5. Ejes fundamentales

Tres serán los ejes fundamentales de este plan de uso:

- La Administración debe garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía, respetando en todo momento su elección lingüística y sin generar ningún tipo de incomodidad.
- Los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales serán la guía fundamental que garantizará la correcta gestión de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Para la consecución de los objetivos fijados, se priorizará la capacitación lingüística del personal municipal y representantes políticos.

6. Derrigortasun indizea

86/1997ko Dekretuaren 17. artikulua herri-administrazioek gutxienez bete beharreko helburuak ezartzen ditu, erakundeak nahitaez bete beharreko indizearen bitartez. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da, honako formula honen bidez:

Euskaldunak + (1a Euskaldunak / 2)

VII. plangintzaldi honetan, Barakaldoko Udalak bete beharreko indizea % 37,35ekoa da, 2021ean Eustatek argitaratutako biztanleria-datuen arabera.

6. Índice de preceptividad

El Decreto 86/1997 establece en su artículo 17 los objetivos mínimos que las entidades deberán alcanzar, por medio de un índice de obligado cumplimiento. Este índice viene determinado por los datos sociolingüísticos de población recogidos en el Censo o Estadística de Población y Vivienda, y se establece de la siguiente manera:

Euskaldunes + (Cuasi Euskaldunes / 2)

El índice de obligado cumplimiento del Ayuntamiento de Barakaldo en este VII período de planificación será del 37,35 %, en base a los datos de población publicados por Eustat en el año 2021.



7. Berariazko hizkuntza-prestakuntza

Administrazioko langile askok hizkuntza-gaitasun jakin bat eskuratu dute. Alde horretatik, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu izanak langilearen gaitasuna ziurtatzen du. Nolanahi ere, badira aintzat hartu beharreko beste hainbat eragile: zenbat denbora igaro den hizkuntza-eskakizuna egiaztatu zuenetik orain arte, zenbateraino erabili duen euskara tarte horretan, langilearen atxikimendua hizkuntzarekiko, euskara erabiltzeko motibazioa...

Arrazoi bat edo bestea dela, gerta daiteke zenbait langilek, euskaraz jakin arren, zailtasunak izatea beren lanpostuei dagozkien funtzio espezifikoak euskaraz egiteko.

Horixe izango da, hain zuzen ere, berariazko hizkuntza-prestakuntzaren helburua: laguntzea jauzi egiten ezagutza orokorretik lanpostuaren berezko eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan betetzera.

Horrela izanik, prestakuntzak epe mugatua izango du: langileak komunikazioak euskaraz egiteko laguntza behar duenean hasi, eta funtzio horiek euskaraz eroso egiteko gauza denean bukatuko da.

8.- Antolakuntza-egitura

VII. plangintzaldiak jasotzen duena garatzeko eta inplementatzeko, antolakuntza-egitura hau osatuko da langileen ordezkariarekin batera:

7. Formación lingüística especializada

Muchos/as trabajadores/as de la Administración han adquirido una determinada capacitación lingüística. En este sentido, el hecho de haber acreditado el perfil lingüístico correspondiente certifica la capacitación del trabajador/a; no obstante, deben tenerse en cuenta otro tipo de condicionantes: cuánto tiempo ha transcurrido desde la acreditación del perfil, cuánto se ha utilizado el euskera durante ese período, la identificación del trabajador/a con la lengua, su motivación para expresarse en euskera, etc.

Sea por una u otra razón puede suceder que algunos/as trabajadores/as, aun sabiendo euskera, tengan dificultades para desempeñar en esta lengua las funciones específicas que requieren sus puestos.

Este será, en efecto, el objetivo de la formación lingüística especializada: ayudar a dar el salto del conocimiento general al desempeño real de las funciones propias del puesto de trabajo en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El período de formación tendrá una duración limitada: comenzará en el momento en que se detecte que alguien necesita ayuda para llevar a cabo sus funciones en euskera, y terminará cuando sea capaz de realizarlas con facilidad.

8.- Estructura organizativa

Se creará la siguiente estructura organizativa para el desarrollo e implementación de lo establecido en el VII período de planificación, con la representación de la plantilla municipal.



Euskararen Normalizaziorako Batzorde Aholkularia (ENBA)

Batzorde hau, dagoeneko eratuta, eta unean une Euskara arloaren eskuduntza duen zinegotzi ordezkariak deituta, honako eskumen hauek izango ditu:

- Barakaldoko Udalaren lanpostuetan ezarri beharreko hizkuntza-eskakizunen kudeaketa eta jarraipena.
- Barakaldoko Udalaren derrigortasun-indizea betetzeko erakundeak ezarri beharreko derrigorrezko hizkuntza-eskakizunen kudeaketa eta jarraipena.
- Beharrezkoa izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari derrigortasun-data berriak jartzeko proposamena egitea.
- Barakaldoko Udalean hizkuntzen kudeaketa dela eta sor litezkeen bestelako gaiak jorratzea.

Euskararen erabilera-planaren jarraipena egiteko lantaldea

Euskararen erabilera-planaren zeharkakotasuna bermatu aldera, komenigarria litzateke lantalde honetan Barakaldoko Udalbatza osatzen duten alderdi politiko guztien ordezkariak eta udal arlo edo zerbitzu estrategikoen ordezkariak egotea.

Lantalde honen hizkuntza euskara izango da; hortaz, kideren batek euskaraz jakingo ez balu, bitartekoak jarriko dira lan-hizkuntza eragozpena izan ez dadin.

Lantaldearen funtzioak honako hauek

Comisión Informativa de Normalización Lingüística (ENBA)

Esta Comisión, ya constituida, se reunirá a convocatoria del concejal/a delegado/a que ostente en ese momento la competencia del área de Euskera con las siguientes funciones:

- Gestión y seguimiento de la implantación de perfiles lingüísticos en los puestos de trabajo del Ayuntamiento de Barakaldo.
- Gestión y seguimiento de todo lo referente a los perfiles lingüísticos preceptivos que ha de establecer la entidad con el fin de cumplir el índice de preceptividad correspondiente.
- Propuesta a la Viceconsejería de Política Lingüística de Gobierno Vasco de nuevas fechas de preceptividad, cuando sea necesario.
- Tratar cualquier otro tema referente a la gestión lingüística que pudiese surgir en el Ayuntamiento de Barakaldo.

Grupo de trabajo para el seguimiento del plan de uso del euskera

Con el fin de garantizar la transversalidad del plan de uso, sería conveniente la participación en dicho grupo de trabajo de representantes de todos los grupos políticos que conforman el Pleno del Ayuntamiento de Barakaldo, así como representantes de todas las áreas o servicios municipales estratégicos.

La lengua vehicular de este grupo de trabajo será el euskera, por lo que si algún miembro lo desconociese, se dispondrán los medios necesarios para que el idioma no constituya ninguna barrera.

El grupo de trabajo tendrá asignadas las



izango dira:

- Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen betetze-mailaren jarraipena egitea.
- Beharrezko egokitzapenak proposatzea ezarritako helburuak erdiesteko asmoz.

9.- Baliabideak

Euskararen Erabilera Planak aurrera egin dezan, giza baliabideak eta baliabide materialak beharko dira:

- *Euskara zerbitzuko langileak*

Euskara zerbitzuko teknikarien zereginak honako hauek izango dira, besteak beste: egitasmoaren diseinua proposatzea, berau betetzeko normalizazio-ekintzak proposatzea, egitasmoa betetzeko hizkuntzari lotutako aholkularitza eta laguntza ematea eta ebaluaketa egiteko metodologia proposatzea.

Era berean, lankidetzeta estua izan beharko dute Giza Baliabideen arloko buruzagitzarekin, lanpostuen zerrendarekin, hizkuntza-eskakizunekin eta derrigortasun-datekin lotutako guztia kudeatu ahal izateko.

- *Itzulpen zerbitzuko langileak*

Hauen funtzioak, besteak beste, honako hauek izango dira: erabilera-planean ezarritako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetatik eratorritako itzulpen-beharrei erantzutea eta euskarazko idatzizko zerbitzuen kalitatea bermatzea.

siguintes funciones:

- Seguimiento y evaluación del Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo.
- Seguimiento del grado de cumplimiento de los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales.
- Proponer los ajustes necesarios para la consecución de los objetivos establecidos.

9.- Recursos

Será necesario dotarse de una serie de recursos humanos y materiales para llevar a cabo el Plan de Uso del Euskera:

- *Personal del Servicio de euskera*

Las funciones del personal técnico del Servicio de Euskera serán, entre otras: proponer el diseño del plan, proponer actuaciones de normalización para su desarrollo, ofrecer asesoría y asistencia lingüística en relación con el desarrollo del plan y proponer una metodología para realizar la evaluación.

Asimismo, deberán mantener una colaboración fluida con la jefatura del área de Recursos Humanos con el fin de poder gestionar todo lo relacionado con la Relación de Puestos de Trabajo, perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad.

- *Personal del servicio de traducción*

Las funciones de dicho personal serán, entre otras, responder a las necesidades de traducción derivadas de los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales establecidos en este plan de uso del euskera, así como garantizar la calidad del servicio ofertado en euskera por escrito.



- Baliabide materialak

VII. plangintzaldiari dagokion aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, Euskara zerbitzuak diru-partida bat izango du urte horretan aurreikusten diren normalizazio ekintzak gauzatzeko.

Halaber, itzulpen-zerbitzuek berariazko diru-partida bat izango dute, Udalak beharrezko duen itzulpen-lanari eutsi ezin dioten uneetan kanpoko laguntza kontratatu ahal izateko.

- Recursos materiales

El Servicio de euskera dispondrá de una partida en cada ejercicio presupuestario correspondiente al VII. período de planificación para llevar a cabo las actuaciones de normalización que se prevean necesarias.

Asimismo se destinará una partida específica a los servicios de traducción, de tal manera que se pueda contratar una ayuda externa en momentos en que resulte imposible abarcar todo el trabajo de traducción requerido.



II.- HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZeko IRIZPIDEAK

II.- CRITERIOS DE USO DE LAS LENGUAS OFICIALES





0. HASIERAKO AGURRA / SALUDO INICIAL

Barakaldoko Udalaren Osoko bilkurak gure erakundeko Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu ditu.

Barakaldon gero eta elebidun gehiago dago, eta herritar horien zerbitzuean dagoen udal-administrazioak lehena izan behar du errealitate horretara egokitzen, herritarrengandik hurbil egoteko eta euren premia eta eskaerei erantzuteko.

Gure herrian euskararen ezagutza-mailak gora egin badu ere azken urteetan, tamalez, euskararen erabilera ez da proportzio berean hazi. Hori dela eta, Barakaldoko Udalak eredu garri jokatu, eta hizkuntza ofizial biak orekaz eta berdintasunez erabiltzeko neurri eraginkorrak hartu behar ditu.

Horrek, duda barik, ohiturak aldatzea, lan egiteko modu berriak inplementatzea eta konfort-gunetik ateratzea eskatuko ditu; egun batetik bestera ezin izango da egin, baina gaur egungo errealitateara egokitu behar dugu, benetan egin daitekeena baino gehiago eskatu gabe, baina egin daitekeen guztia eginez.

Barakaldoko Udalak onetsitako dokumentu hau bi hizkuntza ofizialak berdintasunez kudeatzeko tresna dugu. Egizu zeure, bertan jasotakoa aintzat hartzea Udalaren eta herriaren benetako elebitasunaren alde egitea izango baita.

El Pleno del Ayuntamiento de Barakaldo ha aprobado los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales de nuestra institución.

En Barakaldo cada vez hay más personas bilingües, y una administración municipal que presta servicio a todas estas personas debe ser la primera en adaptarse a esta realidad, con objeto de estar cerca de la ciudadanía y de atender sus necesidades y demandas.

Aunque el nivel de conocimiento del euskera ha aumentado en los últimos años en nuestro municipio, el uso del euskera no ha crecido en la misma proporción, lamentablemente. Ante esta situación, el Ayuntamiento de Barakaldo debe dar ejemplo y adoptar medidas eficaces para garantizar un uso equilibrado e igualitario de ambas lenguas oficiales.

Esto, sin duda, va a requerir un cambio de hábitos, implementar nuevas formas de trabajo y salir de la zona de confort; de un día para otro no se podrá hacer, pero hemos de adaptarnos a la nueva realidad, sin pedir más de lo que realmente se puede hacer pero haciendo todo lo que sí se puede.

Este documento, aprobado por el Ayuntamiento de Barakaldo, es una herramienta para la gestión igualitaria de las dos lenguas oficiales. Hazlo tuyo, porque tomar en consideración todo lo recogido en él será apostar por un bilingüismo real del Ayuntamiento y del municipio.



SARRERA

INTRODUCCIÓN





Hizkuntza-irizpideak bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibide orokorrak dira.

Irizpide orokor hauek Barakaldo Udalaren erabilera-planean txertatu eta gauzatuko dira, eta, behar izanez gero, osatu eta zehaztu egingo dira, ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen.

Los criterios lingüísticos son pautas generales de uso de las dos lenguas oficiales.

Estos criterios generales se integrarán y ejecutarán en el Plan de Uso del Ayuntamiento de Barakaldo, y en caso necesario, se completarán y concretarán para su máxima eficacia.

1.1. Helburuak / Objetivos

Hizkuntza-irizpideek hiru helburu nagusi dituzte:

- a. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta hizkuntza-berdintasuna lortzea herritar horiek Barakaldoko Udalarekin harremanetan jartzen direnean.
- b. Barakaldoko Udalean euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea, horretarako behar diren ekintzak bultzatuz eta xedea eragozten duten oztopoak gaindituz.
- c. Jarraibide argiak ematea Barakaldoko Udaleko arlo, departamentu eta zerbitzu guztiek jakin dezaten noiz eta nola erabili behar diren bi hizkuntza ofizialak.

Horretarako, ezinbestekoa izango da Barakaldoko Udaleko Erabilera Planaren zeharkakotasuna lortzea, eragile guztiak – langileak zein arduradun politikoak – normalizazio-ekintzetan inplikatu eta proaktiboak izan daitezen.

Los criterios lingüísticos tienen tres objetivos principales:

- a. Garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía y conseguir una igualdad lingüística efectiva en las relaciones que esta mantenga con el Ayuntamiento de Barakaldo.
- b. Normalizar y promover el uso del euskera en el Ayuntamiento de Barakaldo, impulsando las acciones necesarias para ello y superando los obstáculos que dificulten el logro de este objetivo.
- c. Ofrecer pautas claras a todas las áreas, departamentos y servicios del Ayuntamiento de Barakaldo para la utilización de las dos lenguas oficiales.

Para su consecución, será imprescindible lograr la transversalidad del Plan de Uso del Ayuntamiento de Barakaldo, de modo que la totalidad de los y las agentes – personal y representantes políticos – se impliquen en las acciones de normalización y tengan una actitud proactiva.



1.2. Aplikazio-eremua / **Ámbito de aplicación**

Barakaldoko Udalaren arlo eta zerbitzu guztiek ezinbestean bete beharko dituzte irizpide hauek.

Arlo eta zerbitzu hauen guztien ardura beren eragin-esparruan hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpide hauek ezagutzea eta betetzea izango da, Euskara zerbitzua bidelagun izango dutelarik.

Estos criterios son de obligado cumplimiento para todas las áreas y servicios del Ayuntamiento de Barakaldo.

Será responsabilidad de todas estas áreas y servicios conocer y cumplir estos criterios sobre el uso de las lenguas oficiales en su ámbito de influencia, contando con el asesoramiento del Servicio de euskera.

1.3. **Herritarren hizkuntza-eskubideak / Derechos lingüísticos de la ciudadanía**

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera, eta Autonomia Erkidegoko Alor publiko osoak hizkuntza horien ofizialtasuna arautu, eta bi hizkuntzen erabilera-berdintasuna bermatu behar du.

Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, eta botere publikoek eskubide horien erabilera bermatu behar dute. Oinarrizko printzipio horretatik ondorioztatzen da hizkuntza-eskubideak herritarrenak direla, eta ez botere publikoenak, eta azken hauei dagokiela eskubide horiek errespetatzea eta betetzen direla bermatzea.

Hala izanik, Barakaldoko Udalaren betebeharra da eskubide horren erabilera bermatzea, langile publikoek herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu orotan.

Horretarako, Barakaldoko Udalaren mendeko langile publikoek herritarrek kasu bakoitzean aukeratzen duten hizkuntza ofiziala erabiliko dute herritarrekiko komunikazioetan. Barneko erakunde-komunikazioetan, edo beste administrazio batzuekin dituzten komunikazioetan,

El euskera, lengua propia del País Vasco, es además lengua oficial junto con el castellano, y todo el Sector Público de la CAE debe regular su carácter oficial y garantizar el uso de ambas lenguas.

Todos los ciudadanos y ciudadanas del País Vasco tienen derecho a conocer y usar el euskera y el castellano, y los poderes públicos deben garantizar el ejercicio de estos derechos. De este principio fundamental se deriva que es la ciudadanía la depositaria de los derechos lingüísticos, y no los poderes públicos, a quienes corresponde respetarlos y garantizar su cumplimiento.

Consecuentemente, el Ayuntamiento de Barakaldo tiene la obligación de garantizar el ejercicio de este derecho, en todo servicio que las y los trabajadores públicos ofrezcan a la ciudadanía.

Para ello el personal público del Ayuntamiento de Barakaldo, en sus comunicaciones con la ciudadanía, utilizará la lengua oficial que estos elijan en cada caso. En las comunicaciones institucionales internas, o en aquellas que mantengan con otras administraciones, el



hizkuntzen erabilera hizkuntza-irizpide hauetan ezarritakoaren arabera izango da, ahoz zein idatziz.

uso de las lenguas se ajustará a lo establecido en estos criterios lingüísticos, tanto oralmente como por escrito.

1.4. Kalitateko komunikazioa / Comunicación de calidad

Barakaldoko Udalak kalitateko komunikazioa sustatu behar du, estilo zuzen, egoki eta ulergarrian, herritarrek Administrazioaren mezuak ahalegin handirik gabe ulertzeko eskubidea dutela jakinda.

El Ayuntamiento de Barakaldo debe promover una comunicación de calidad, con un estilo directo, apropiado y comprensible, consciente de que a la ciudadanía le asiste el derecho a entender, sin mayor esfuerzo, los mensajes de la Administración.

Halaber, komunikazioak gramatikalki eta ortografikoki zuzenak izango dira, eta hizkuntza bakoitzaren berezko moldeak edo esateko era errespetatuko dira.

Igualmente, las comunicaciones habrán de ser gramatical y ortográficamente correctas y respetarán las estructuras o modos de expresión propios de cada lengua.

1.5. Diskriminaziorik gabeko komunikazioa / Lenguaje no discriminatorio

Barakaldoko Udalak hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar du irudi eta hizkera mota guztietan, zuzenean eta beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituen dokumentu eta euskarrietan.

El Ayuntamiento de Barakaldo debe hacer un uso inclusivo y no sexista de todo tipo de imágenes y lenguajes, en los documentos y soportes que produzca directamente y a través de otras personas o entidades.



HIZKUNTZEN KUDEAKETA

GESTIÓN DE LAS LENGUAS





Herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta bete daitezzen, hizkuntza ofizialen kudeaketa erakundeko kudeaketa-sistema orokorraren barruan txertatuta egon beharko da. Hau da, hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzea Barakaldoko Udalak hartutako erabaki estrategikoa izan behar da, eta bere erronken artean, euskararen erabilera sustatzea egon behar da, hizkuntza ofizial bien arteko erabilera-berdintasuna lortze aldera.

Hartara, hizkuntza-irizpideak zeharkakotasunez landuko dira, hau da, udal-jarduera guztietan, jarduerok gauzatu aurretik, hizkuntzaren erabileran eragingo duten faktore guztiak hartuko dira aintzat.

2.1. Lidergoa / Liderazgo

Barakaldoko Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatuko die herritarrei eta gainerako interes-taldeei (beste administrazio publikoak, hornitzaileak, elkarteak, enpresa pribatuak, etab.).

Komunikatuko dena ez da soilik izango euskara sustatu nahi duela, baizik eta erakundeak erabaki estrategikoa bat hartu duela, eta bere erronken artean euskara sustatzea dagoela. Ondorioz, estrategia hori gauzatzera bideratutako tresna eta baliabideen berri ere emango die herritar eta interes-taldeei.

Halaber, hizkuntza-politika eraginkorra egiteko, behar-beharrezkoa da udalkide guztien inplikazioa lortzea:

- Ordezkaritza politikoak eredu garrantzitsuak izango dira, eta euskararekiko jarrera aitzindaria erakutsiko dute. Halaber, Erabilera Planean

La gestión de las lenguas oficiales deberá estar integrada en el sistema general de gestión de la entidad, con objeto de salvaguardar y hacer efectivos los derechos lingüísticos de la ciudadanía. Es decir, la gestión del uso de las lenguas oficiales ha de ser una decisión estratégica del Ayuntamiento de Barakaldo, y entre sus retos ha de figurar el fomento del uso del euskera, en aras de conseguir la igualdad de uso entre ambas lenguas oficiales.

Para ello, los criterios lingüísticos se trabajarán de forma transversal, es decir, en todas las actividades municipales, y antes de llevarlas a cabo, habrán de ser tenidos en cuenta todos los factores que influirán en el uso de la lengua.

El Ayuntamiento de Barakaldo comunicará a la ciudadanía y al resto de grupos de interés (otras administraciones públicas, proveedores, asociaciones, empresas privadas, etc.) su estrategia de promoción del uso del euskera.

Lo que se comunicará no será únicamente que quiere fomentar el euskera, sino que la entidad ha tomado una decisión estratégica y que entre sus retos está el fomento del euskera. Por ello, también informará a la ciudadanía y a los grupos de interés de los instrumentos y recursos destinados a implementar dicha estrategia.

Igualmente, una política lingüística eficaz necesita la implicación de todos los y las agentes municipales:

- Los y las representantes políticos adoptarán una actitud ejemplar y pionera hacia el euskera. Asimismo, dotarán de los



zehaztutako helburuak lortzeko behar beste tresna eta baliabide jarriko dituzte.

- Ordezkarri politikoekin batera, zerbitziburuen ardura izango da beren esparruan hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau eta irizpide hauek ezagutzea, ezagutaraztea eta betearaztea. Halaber, euren kargupeko pertsonak euskararen normalizazioan inplikatuko dituzte, eta sustapen-lana egingo dute.

instrumentos y recursos necesarios para la consecución de los objetivos definidos en el Plan de Uso.

- Junto con la representación política, los y las Jefaturas de Servicio serán responsables de conocer, transmitir y hacer cumplir las presentes normas y criterios relativos al uso de las lenguas oficiales en su ámbito. Asimismo, implicarán a las personas a su cargo en la normalización del euskera y realizarán una labor de promoción.

2.2. Udal-langileak / Personal municipal

Arlo eta atal bakoitzaren ardura izango da, zerbitziburuen bitartez, langileei informazioa ematea onetsitako Erabilera Planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, langileek une oro argi izan dezaten zein den Barakaldoko Udalaren ikuspegi eta estrategia hizkuntzen kudeaketaren alorrean.

Udal langileek hizkuntza-irizpideok ezagutzearekin batera, eta euskaraz jakin edo ez, bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu eta sustatu egingo dute, berdintasunez.

Ildo beretik, Barakaldoko Udalean langile berri bat lanean hasten den bakoitzean, honako hauei buruzko informazioa emango zaio:

- Udalak ezarrita dituen hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak eta Erabilera Plana.
- Euskararen aldeko atxikimendua eta jarrera positiboa erakusteko bideak.

Corresponderá a cada área y departamento, a través de las correspondientes jefaturas, informar a su personal sobre el Plan de Uso aprobado y los criterios lingüísticos, con el fin de que las y los trabajadores tengan en todo momento claro cuál es la visión y estrategia del Ayuntamiento de Barakaldo en materia de gestión lingüística.

El personal municipal, además de conocer estos criterios lingüísticos y con independencia de que sepa o no euskera, garantizará y promoverá el uso de las dos lenguas oficiales en condiciones de igualdad.

De igual manera, cuando se produzca una nueva incorporación a la plantilla municipal, se le facilitará información acerca de los siguientes puntos:

- Criterios de uso de las lenguas oficiales y el Plan de Uso que el Ayuntamiento tenga aprobados.
- Recursos disponibles para mostrar una adhesión y actitud positiva hacia el euskera.



- Euskara ikasteko baliabide eta erraztasunak.
- Euskara hobetzeko edota praktikan jartzeko baliabideak.
- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketa ofizialak.
- Recursos y facilidades para estudiar euskera.
- Recursos para mejorar y/o poner en práctica la lengua.
- Exámenes oficiales de acreditación de perfiles lingüísticos.

Giza baliabideen arloak edo departamentuak aurreko informazioa jasotzen duen eskuorri bat banatuko die langile berri guztiei.

El área o departamento de Recursos Humanos entregará a todo el personal de nueva incorporación un folleto con la información anterior.

Halaber, aipatu arlo edo departamentuak inkorporazio horien berri emango dio Euskara zerbitzuari, euskara teknikariak langile berriekin harremanetan jar daitezten.

Asimismo, dicha área o departamento dará cuenta de estas incorporaciones al Servicio de euskera para que los técnicos de euskera se pongan en contacto con el nuevo personal.

2.3. Hizkuntza-gaitasuna / Capacitación lingüística

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 11/2022 Legean (187.5-6 artikulua) eta 86/1997 Dekretuan (7. artikulua) jasotzen denaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko beharrezko den gaitasun-maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntza-eskakizun dagokion.

La Ley 11/2022 de la Función Pública Vasca (art. 187.5-6) y el Decreto 86/1997 (art. 7) establecen que los perfiles lingüísticos correspondientes a cada uno de los puestos de trabajo existentes en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco se determinarán en función del nivel de capacitación necesario para el desempeño de los mismos.

Behin hizkuntza-eskakizuna ezarrita, plangintzaldi bakoitzean Udalak bete beharreko indizea zehaztuko da, eta indize horrek adieraziko du zenbat lanpostu izan behar duten esleituta derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna.

Una vez establecido el perfil lingüístico, en cada periodo de planificación se determinará el índice de obligado cumplimiento correspondiente a la entidad, que indicará el número de plazas que habrán de tener un perfil lingüístico preceptivo asignado.

Derrigortasun-datak adierazten du lanpostu batean euskara-maila jakin bat noiztik aurrera izango den derrigorrezkoa. Hartara, derrigortasun-data kontuan hartuko da lanpostuak hornitzaerakoan eta ordezkapenak zein zerbitzu-eginkizunak garatzaerakoan.

La fecha de preceptividad indica la fecha a partir de la cual un determinado nivel de euskera será obligatorio en un puesto de trabajo. Así, la fecha de preceptividad será determinante para la provisión de puestos de trabajo, así como la gestión de sustituciones y comisiones de servicios.



Barakaldoko Udalak baliabideak eta erraztasunak jarriko ditu udal-langile guztien eskura, euren lanpostuetarako behar duten hizkuntza-gaitasuna lor dezaten, edo lortuta badute, erabilera-falta dela eta, gal ez dezaten.

El Ayuntamiento de Barakaldo pondrá a disposición de todo el personal municipal recursos y facilidades para que adquieran la competencia lingüística necesaria para sus puestos de trabajo o para que, si la tienen adquirida, no la pierdan por falta de uso.

2.4. Hizkuntza-klausulak / Cláusulas lingüísticas

Barakaldoko Udalak egiten dituen kontratuetan, kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, batetik, herritarrei bermatzeko erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izateko kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko.

En los contratos suscritos por el Ayuntamiento de Barakaldo se incluirán las cláusulas que en cada caso sean necesarias para garantizar a la ciudadanía el acceso a las actividades o servicios objeto del contrato en las mismas condiciones lingüísticas que se exigen a la entidad, así como el cumplimiento de la regulación de la oficialidad lingüística del euskera y del castellano.

Administrazio-klausula partikularrei eta baldintza teknikoei buruzko agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, salbu eta grafikoak edo guztiz teknikoak diren dokumentuak. Horiek hizkuntza ofizialetako batean bakarrik argitaratu ahal izango dira.

Los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas se publicarán en las dos lenguas oficiales, a excepción de aquellos documentos de carácter gráfico o eminentemente técnico, que podrán redactarse en una de las lenguas oficiales.

Barakaldoko Udalak hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea betearaziko du kontratu publikoetan. Beraz, kasuan kasu, kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak ezarriko ditu administrazio-klausula partikularren agirietan. Horretarako, behar izanez gero, Euskara zerbitzuaren aholkularitza izango dute.

El Ayuntamiento de Barakaldo ejecutará el régimen de doble oficialidad lingüística en los contratos públicos. En consecuencia, establecerá en los pliegos de cláusulas administrativas particulares los requisitos lingüísticos en función del objeto del contrato de que se trate. Para ello, en caso necesario, contarán con el asesoramiento del Servicio de euskera.

Hizkuntza-baldintzen betetze-mailaren jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio, hark izendatutako kontratuaren arduradunaren figuraren bitartez.

El seguimiento del cumplimiento de los requisitos lingüísticos corresponde al órgano de contratación, a través de la figura del responsable del contrato que este designe.

Kontratu hauen bidez, Barakaldoko Udalak

En atención a los posibles receptores de



eskainiko dituen zerbitzuen balizko hartzaileak kontuan hartuta, honako hizkuntza-irizpide hauek ezarri beharko liriateke kontratuetan:

1. Herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatuko da:

- a) Enpresa esleipendunaren eta kontratua gauzatzean harremanetan egongo diren erabiltzaile edo pertsonen arteko ahozko zein idatzizko komunikazioan, kasu bakoitzean erabiltzaileak edo hirugarrenak aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da.
- b) Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, exekuzioaz arduratzen den enpresak pertsona fisiko eta juridikoei egiten dizkien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira. Nolanahi ere, herritarrak edozein unetan baliatu ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea, eta hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea eskatu ahal izango du.
- c) Megafoniaz edo beste edozein bide telematikoz egiten den komunikazio oro, gutxienez, euskaraz eta gaztelaniaz egingo da.
- d) Legea edo aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren klausulak aplikatzearen ondorioz, esleipendun berria, lan-harremani dagokienez, amaitutako kontratuari atxikitako langileekin subrogatu behar bada, eta horiek ez badute hizkuntza-gaitasunik kontratuko klausuletan hizkuntzaren alorrean ezarritako baldintzak betetzeko, dagozkien administrazio-pleguetan zehaztuko diren esleipen-irizpideetan, subrogatutako langileei zuzendutako hizkuntza-prestakuntzako plan zehatz bat aurkeztea baloratu dadila proposatuko da. Plan horrek ez

los servicios que el Ayuntamiento de Barakaldo presta a través de dichos contratos, deberían establecerse los siguientes criterios lingüísticos en los mismos:

1. En los contratos que impliquen contacto directo con la ciudadanía se garantizará que:

- a) La lengua a utilizar en la comunicación, tanto oral como escrita, entre la empresa adjudicataria y los usuarios o personas con las que haya de relacionarse en ejecución del contrato será aquella que elija el/la usuario/a o tercero, en cada caso.
- b) Cuando no conste expresamente opción alguna, las notificaciones y comunicaciones de todo tipo que la empresa encargada de la ejecución dirija a las personas físicas y jurídicas se realizarán en las dos lenguas oficiales, sin perjuicio de que en cualquier momento el ciudadano pueda ejercer su derecho a la opción de lengua y pueda demandar el uso de una sola de las lenguas oficiales.
- c) Toda comunicación que se realice por megafonía, así como por cualquier otro canal telemático, se efectuará, al menos, en euskera y castellano.
- d) Si la empresa adjudicataria, por aplicación de la ley o de las correspondientes cláusulas del convenio colectivo aplicable, hubiera de subrogarse en las relaciones laborales con el colectivo de trabajadores y trabajadoras adscrito al contrato extinguido, y en caso de que este no estuviera capacitado lingüísticamente para cumplir con los requisitos lingüísticos establecidos en las cláusulas contractuales, en los criterios de adjudicación que se detallarán en los correspondientes pliegos administrativos se pondrá la



ditu langile horien lan-eskubideak inola ere kaltetuko, eta kontratatutako zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan emateko gaitasuna eskuratzea izango du helburu.

2. Esleipenaren xedea obra publiko bat denean, beharrezkoa izango da errotulu, argitalpen, seinale, ohar edo bestelako komunikazio oro, gutxienez, euskaraz eta gaztelaniaz egitea, hurrenkera horretan.

3. Kontratuaren xedea azterlanak, txostenak, proiektuak edo antzeko lanak egitea bada, lan horiek bi hizkuntza ofizialetan idatzita egotea eskatuko da, salbu eta, xedea dela eta, nahitaez hizkuntza ofizialetako bakar batean soilik idatzi behar direnean. Eskakizun hori jasota egon beharko da onartzen diren kontratuaren baldintza-agirietan.

- a. Barakaldoko Udalak ez du inola ere bere gain hartuko kontratu administratiboen ondorioz sortutako dokumentuen itzulpena.
- b. Halaber, kontratazioa sustatzen duen organoaren erantzukizuna izango da kontratu hauetako edozeinen bitartez sortutako dokumentu mota guztietan hizkuntza ofizialen erabilera zuzena zaintzea eta gainbegiratzea. Horretarako, itzulpengintzan edo hizkuntza-normalizazioan eskumena duen udal-organoaren laguntza eta aholkularitza izango du.

Ezartzen diren hizkuntza-klausula ez betetzeak edozein kontratu-klausula betetzen ez denerako oro har aurreikusita dauden ondorioak ekarriko ditu. Hortaz, irizpide horiek ez betetzeak zigorra jartzea eragin dezake, edo kontratua

valoración por la presentación de un plan detallado de formación lingüística dirigido al personal subrogado, plan que en ningún caso menoscabe sus derechos laborales y que tenga como finalidad adquirir la capacitación necesaria para prestar el servicio contratado en ambas lenguas oficiales.

2. Cuando el objeto de la adjudicación sea una obra pública, se requerirá que todo rótulo, publicación, señalización, aviso o cualquier otro tipo de comunicación se emita, al menos, en euskera y castellano, en ese orden.

3. Cuando el objeto del contrato sea la realización de estudios, informes, proyectos u otros trabajos de similar naturaleza, se requerirá la redacción de los mismos en ambas lenguas oficiales, salvo que, por su objeto, deban redactarse necesariamente en una única de las dos lenguas oficiales. Este requisito deberá constar en los pliegos de condiciones contractuales que se aprueben.

- a. El Ayuntamiento de Barakaldo no asumirá en ningún caso la traducción de documentos creados en virtud de contratos administrativos.
- b. Igualmente, será responsabilidad del órgano que promueva la contratación cuidar y supervisar el uso correcto de las lenguas oficiales en todo tipo de documentos creados en virtud de cualquiera de estos contratos. Para ello, dispondrá del apoyo y asesoramiento del órgano municipal competente en materia de traducción o normalización lingüística.

Del incumplimiento de las cláusulas lingüísticas que se establezcan se derivarán las consecuencias previstas con carácter general para el incumplimiento de cualquiera de las cláusulas contractuales, de modo que su incumplimiento podrá dar



suntsiaraztea ere ekar dezake, hala ezarrita badago dagokion Administrazio Klausula Berezien Pleguan.

Edonola ere, bi hizkuntza ofizialen ezagutza eta erabilera eskatzea ez dadin egon kontratazio publikoaren arloko printzipio orokorren kontra, ez dadin arbitrarioa izan eta ez dadin arrazoirik gabea izan, ezinbestekoa da betekizun zehatz bakoitza kontratazio-espeditentean arrazoitzea eta justifikatzea.

lugar a la imposición de penalidades o incluso resolución del contrato, si así se establece en el correspondiente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

No obstante, para que la exigencia del conocimiento y uso de las dos lenguas oficiales no sea contraria a los principios generales en materia de contratación pública, ni arbitraria, ni carente de razonabilidad, es imprescindible que se motive y justifique en el expediente de contratación la exigencia concreta.

2.5. Dirulaguntzak / Subvenciones

Barakaldoko Udalak euskara sustatzeko irizpideak aplikatuko ditu dagokion organoaren oinarri eta deialdietan (dirulaguntza zuzenen kasuan), bai eta erakundearen beraren agindu eta hitzarmenetan ere (dirulaguntza izendunen kasuan), betiere proportzionaltasun-printzipioari jarraituta, diruz lagundutako jardueraren ezaugarrien, xedearen eta hartzailen arabera.

Los criterios para el fomento del euskera serán de aplicación por parte del Ayuntamiento de Barakaldo en las bases y convocatorias del órgano correspondiente (en el caso de las subvenciones directas), así como en las órdenes y convenios de la propia entidad (en el caso de subvenciones nominales), respetando en todo momento el principio de proporcionalidad en función de las características, el objeto y las personas destinatarias de la actividad subvencionada.

Dirulaguntzen oinarrietan eta laguntzen zenbatekoa finkatzeko irizpideen artean, hizkuntza ofizialen erabilera hartuko da kontuan, dirulaguntzaren xedean hizkuntzaren erabilerak eragin handia duenean.

Las bases de las subvenciones y los criterios para fijar la cuantía de estas tendrán en cuenta el uso de las lenguas oficiales, siempre que el uso de la lengua tenga una incidencia significativa en el objeto de la subvención.

Dirulaguntzaren xede den jarduerak herritarrekin harreman zuzena izatea dakarrenean, euskararen erabilera normalizatua bermatuko da, gaztelaniaren erabilera alde batera utzi gabe. Halaber, diruz lagundutako jardueraren esparruan komunikazioak edo argitalpenak egiten direnean, gutxienez, euskararen presentzia bermatuko da.

Cuando la actividad objeto de la subvención implique una relación directa con la ciudadanía, se garantizará el uso normalizado del euskera, sin perjuicio del uso del castellano. Asimismo, cuando en el marco de la actividad subvencionada se produzcan comunicaciones o publicaciones, se garantizará, como mínimo, la presencia del euskera.

Dirulaguntza kudeatzeko eskumena duten

Los órganos competentes de la gestión de



organoek neurriak hartuko dituzte onuradunek xedatutako hizkuntza-betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko eta hizkuntza ofizial biak zuzentasunez erabiltzen direla zaintzeko.

la subvención adoptarán las medidas necesarias para verificar el cumplimiento por parte de los beneficiarios y beneficiarias de las obligaciones lingüísticas establecidas, y velarán por el correcto uso de las dos lenguas oficiales.

2.6. Hitzarmenak / Convenios

Barakaldoko Udalak hitzarmenak sinatu ditzake beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko, betiere erakundeari dagokion eskumen-esparruaren barruan.

El Ayuntamiento de Barakaldo podrá suscribir convenios con otras entidades públicas o privadas para impulsar el conocimiento y uso del euskera, dentro del ámbito competencial que le corresponde.

Pertsona fisiko eta juridikoekin sinatzen diren hitzarmenak, gutxienez, euskaraz idatziko dira.

Los convenios que se suscriban con personas físicas y jurídicas se redactarán, al menos, en euskera.

Hitzarmenaren edukia nolakoa den, euskara sustatzeko eta herritarren eskubideak babesteko hizkuntza-klausulak ezarri ahal izango dira.

Dependiendo del contenido del convenio, se podrán incluir cláusulas lingüísticas para la promoción del euskera y la protección de los derechos de la ciudadanía.

2.7. Lagapenak / Cesiones

Pertsona fisikoek nahiz juridikoek jarduerak egiteko udal-instalazioak eskatzen dituztenean (kirol instalazioak, kultur ekipamenduetako gelak edo aretoak...) eta zerbitzuak emateko jarduerak egiteagatik, prezio publikoen araudiaren arabera, hobariren bat dagokienean edo tasa ordaintzetik salbuetsita geratzen direnean, onuradunek egiten dituzten komunikazio orokor guztietan, gutxienez, euskararen presentzia bermatu beharko da:

Cuando personas físicas o jurídicas soliciten instalaciones municipales para la realización de actividades (instalaciones deportivas, salas o dependencias de equipamientos culturales...) y en función de la ordenanza de precios públicos, por la realización de actividades de prestación de servicios les corresponda alguna bonificación o queden exentas del pago de tasas, se garantizará la presencia de, al menos, el euskera en todas las comunicaciones generales que realicen las personas beneficiarias:

- Argibideak, publizitatea, iragarkiak, zerbitzuak eskaintzeko agiriak...
- Megafoniaz ematen diren komunikazioak.

- Información, publicidad, anuncios, documentos de prestación de servicios...
- Comunicaciones por megafonía.



Halaber, udal-jabari publikoaren doako lagapena egiten denean aldi baterako instalazio (azokak...) edo jarduerak egiteko, gutxienez, euskararen presentzia bermatu beharko da kartel, iragarki eta jardueraren berri emateko idatzietan.

Betebehar hori udal-instalazioak edo lur publikoa baimentzeko agirietan jaso beharko da.

Asimismo, en las cesiones gratuitas de terrenos de dominio público municipal para instalaciones temporales (ferias...) o actividades, deberá garantizarse la presencia de, al menos, el euskera en los correspondientes carteles, anuncios y comunicaciones informativas.

Esta obligación deberá recogerse en los documentos de autorización de instalaciones municipales o suelo público.



HIZKUNTZEN ERABILERA

USO DE LAS LENGUAS





3.1. ZERBITZU-HIZKUNTZA / LENGUA DE SERVICIO

3.1.1. Irudia / Imagen

Barakaldoko Udalaren irudi korporatiboko elementu guztietan, gutxienez, euskararen presentzia bermatuko da, euskarria edozein dela eta.

Barakaldoko Udalaren irudi korporatiboari dagozkion elementu eta zerbitzuak – jarraian zehaztuak- kanpoko kontratazio baten bitartez gauzatzen bada, artikulua honetan adierazitako irizpideak berariaz jasoko dituen klausula bat sartuko da pleguetan.

Errotulazioa

Errotulazioa, finkoa zein behin-behinekoa, hizkuntza ofizial bietan agertuko da, beti, bulego eta egoitza guztien kanpoaldean nahiz barrualdean.

Errotuluetako testua euskara hutsean idatzi ahal izango da kasu hauetan, betiere euskara ez dakiten herritarren hizkuntza-eskubideak urratu gabe:

- a) Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
- b) Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
- c) Mezuak piktograma batez lagundurik agertzen direnean eta horren bitartez ulergarriak direnean.

Errotulu berria egin aurretik, Euskara edo Itzulpen Zerbitzuaren laguntza edo oniritzia eskatu ahal izango da, mezuaren zuzentasuna bermatzeko asmoz.

En los elementos de la imagen corporativa del Ayuntamiento de Barakaldo deberá garantizarse, al menos, la presencia del euskera, sea cual sea su soporte.

En el caso de que cualquiera de los servicios y elementos correspondientes a la imagen corporativa del Ayuntamiento de Barakaldo –detallados a continuación- se lleven a cabo mediante una contratación externa, se incluirá en los pliegos una cláusula que recoja expresamente los criterios señalados en este artículo.

Rotulación

La rotulación, tanto la fija como la eventual, se dispondrá, por norma general, en las dos lenguas oficiales, tanto en el interior como en el exterior de las dependencias y sedes municipales.

El texto del rótulo podrá redactarse sólo en euskera en los siguientes supuestos, siempre que no se vulneren los derechos lingüísticos de la ciudadanía que no sabe euskera:

- a) Cuando las palabras tengan una grafía similar en euskera y castellano.
- b) Cuando el rótulo escrito en euskera no genere confusión.
- c) En aquellos casos en los que los mensajes vayan acompañados de pictogramas que faciliten su comprensión.

Antes de colocar un nuevo rótulo se podrá solicitar la ayuda o visto bueno del Servicio de Euskera o de Traducción, con el fin de garantizar la corrección lingüística.



Ikus-entzunezkoak

Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak, bozgorailuz, audioa duten tresnez eta antzeko bitartekoez zabaldukoak, bi hizkuntza ofizialetan emango dira.

Komunikazio horiek euskara hutsean egin ahal izango dira hartzaileen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.

Edozein euskarraren bidez zabalduko bideo informatiboaren kasuan, euskarazko eta gaztelaniazko bertsio bana egin eta zabaltzeko ahalegina egingo da, eta halakorik egitea posible ez balitz, bideoak hizkuntza bietako batean zabalduko dira, beste hizkuntzan azpidatziak jarrita. Nolanahi ere, ahalegina egingo da bideoak euskaraz zabaltzeko, gaztelaniazko azpidatziak jarrita.

Hiri-bideak

Hiri-bideetako trafikoseinaleak, iragarpenak eta, oro har, bertako informazio-euskarri guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira.

Nolanahi ere, euskarazko testua lehenetsiko da, nazioarteko arauak errespetatzen badira eta ulergarritasuna bermatuta badago.

Argitalpenak

Barakaldoko Udalaren argitalpen guztietan (aldizkariak, katalogoak, esku-orriak...) bi hizkuntza ofizialen presentzia bermatuko da, ahal den neurrian, berdintasunez. Hala ere, hartzaileen eta edukiaren ezaugarriak kontuan izanda, euskara hutsean ere plazaratu ahal izango dira, adibidez, helburua euskararen sustapena denean.

Testu legal, bando, arau-bildumak, jai edo bestelako ekimen kultureko egitarauak

Comunicaciones audiovisuales

Los mensajes orales de carácter general, difundidos mediante altavoces, otros aparatos de audio y similar, se emitirán en ambas lenguas oficiales.

Estas comunicaciones se podrán realizar solo en euskera cuando las características lingüísticas de las personas destinatarias lo permitan.

En el caso de vídeos informativos difundidos a través de cualquier tipo de canal, se procurará realizar y difundir una versión en euskera y otra en castellano, y si esto no fuera posible, los vídeos se difundirán en una de las dos lenguas con subtítulos en la otra lengua. En cualquier caso, se realizará un esfuerzo por difundir dichos vídeos en euskera con subtítulos en castellano.

Vía pública

Las señales de tráfico, anuncios y, en general, todo tipo de soporte informativo de la vía pública se redactará en las dos lenguas oficiales.

No obstante, se dará prioridad al texto en euskera, siempre y cuando queden garantizados su comprensión y el respeto de las normas internacionales.

Publicaciones

El Ayuntamiento de Barakaldo garantizará en todas sus publicaciones (revistas, catálogos, folletos...) la presencia de las dos lenguas oficiales, en la medida de lo posible, de forma paritaria. No obstante, estas podrán realizarse solo en euskera atendiendo a las características de las y los destinatarios y al contenido, como por ejemplo, cuando su finalidad sea la promoción del euskera.

Los textos legales, bandos, compilaciones normativas, programas de fiestas u otras



eta gazteentzako egitarauak ele bietan argitaratuko dira, osorik.

Kasu guztietan, testuen egokitasuna eta hizkuntza-zuentasuna nahitaezko baldintzak izango dira.

Prensa-oharrak

Prensa-oharrak bi hizkuntza ofizialetan bidaliko dira hedabideetara.

Iragarkiak eta publizitatea

Bi hizkuntza ofizialetan egingo dira arlo guztietako iragarki ofizialak eta gainerako publizitate-ekintzak. Hala ere, hartzaileen eta hedabideen ezaugarriak kontuan hartuta, euskara hutsean ere egin ahal izango dira, adibidez, euskarazko hedabideetan.

Kanpainen edukiak eta esloganak asmatzerakoan, bereziki zainduko da euskarazko leloak euskaraz sortuak direla, eta ez direla gaztelaniazko leloen itzulpen hutsa.

Halaber, behar den guztietan, Euskara edo Itzulpen Zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango da, testuen kalitatea bermatzeko.

Komunikazio elebidunetan euskara kokatzeko neurriak

Honako neurri hauek hartuko dira aintzat **komunikazio elebidun orotan**:

Kokapena

- o Irakurketaren ibilbideari jarraikiz, **euskara gaztelania baino lehentsuago** agertuko da. Hau da, testua goitik behera taxutzen denean, euskarazko testua **goiko**

actividades culturales y programas juveniles se publicarán íntegramente en las dos lenguas.

En todo caso serán requisitos imprescindibles la calidad y corrección de los textos.

Notas de prensa

Las notas de prensa se enviarán a los medios de comunicación en las dos lenguas oficiales.

Anuncios y publicidad

Los anuncios oficiales y demás actos publicitarios de todas las áreas se realizarán en las dos lenguas oficiales. No obstante, estos podrán realizarse solo en euskera atendiendo a las características de las y los destinatarios y los medios de comunicación, como por ejemplo, en los medios de comunicación en euskera.

Se velará especialmente porque los contenidos y eslóganes creados en euskera hayan sido creados originalmente en dicha lengua, y no sean meras traducciones del eslogan en castellano.

Asimismo, y siempre que sea necesario, se podrá solicitar el asesoramiento tanto del Servicio de Euskera como del Servicio de Traducción, en aras de garantizar la calidad de los textos.

Medidas para la inserción del euskera en toda comunicación bilingüe

Se adoptarán las siguientes medidas **en toda comunicación bilingüe**:

Ubicación

- o Siguiendo el orden lógico de lectura, el **euskera aparecerá siempre en una ubicación anterior al castellano**. Es decir, cuando la disposición sea de



aldean egongo da.

- Testua **zutabeetan** antolaturik badago, **euskarazko testua ezkerrekoan** agertuko da.
- Ohiko komunikazioetan, **bi hizkuntzak orrialde berean agertzea** lehenetsiko da.
- **Orri bat baino gehiagoko euskarrietan** (biorrikoak, hiruorrikoak...), **bi hizkuntza ofizialak orrialde desberdinetan badoaz, euskarazko bertsioa eskuineko orrian** jarriko da.
- Bi hizkuntzak ezinbestean testu bereizietan agertu behar badira (iragarki-taula, kartel bereziak eta abar), **euskarazko testuak gaztelaniazkoak duen eskuragarritasun eta ikusgarritasun bera izango du.**
- Era berean, **ahozko komunikazioak** egitean, mezuak **lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz** zabalduko dira.

Tipografia

- Erabiltzen diren **hizkien tamainan ezberdintasunik balego, euskarazko testuak hartuko luke tamainarik handiena.**
- **Errotulazioan, karteletan** eta antzekoetan, euskarazko testuak gaztelaniazkoaren **tamaina bera** izango du.
- **Ohiko idazkietan, zutabeetan antolatutako testuetan** eta antzekoetan, berriz, **maila bera** izango dute.

verticalidad, el euskera se situará **encima** del castellano.

- Cuando se trate de un texto planteado en **columnas**, el texto en euskera se colocará **en la columna izquierda.**
- En las comunicaciones se priorizará que aparezcan **en la misma hoja ambas lenguas.**
- **En soportes de más de una página** (dípticos, trípticos...), si las dos lenguas oficiales van en páginas distintas, **la versión en euskera** se colocará en la **página de la derecha.**
- Cuando las dos versiones lingüísticas hayan de aparecer inevitablemente por separado (tablón de anuncios, carteles diferenciados, etc.) **la versión en euskera tendrá una visibilidad y accesibilidad igual a la de castellano.**
- Cuando se trate de **comunicaciones orales**, los mensajes se difundirán **primero en euskera y después en castellano.**

La tipografía

- **De existir una variación en los tamaños de las fuentes** usadas, la de **mayor tamaño** será la de la versión en **euskera.**
- El texto en euskera ocupará un **rango igual** al de castellano en **impresos, rotulación, carteles,** etc.
- En **escritos habituales, textos en columnas,** etc., tendrán **el mismo tratamiento.**



- Bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatze aldera, elementu baztergarri guztiak saihestuko dira. Adibidez, helbideen kasuan, herritarrekiko harremanetan, "Larrea, 25" bezalako formulak lehenetsiko dira, "C/ Larrea, nº 25" tankerakoen ordez.
- Se evitarán todos aquellos elementos que, siendo prescindibles, pudieran discriminar a una de las lenguas. Por ejemplo, en el caso de las direcciones, en las relaciones con la ciudadanía se primarán fórmulas del tipo "Larrea, 25" frente a "C/ Larrea, nº 25" o similares.

Udaleko osoko bilkurak eta batzordeak

Barakaldoko Udalak deitzen dituen Osoko Bilkuretan zein udal-batzordeetan, bi hizkuntza ofizialen erabilera orekatua bermatuko da, une oro.

Osoko Bilkurak nahiz udal-batzordeak deitzeko komunikazio euskarri oro (bilera-deiak eta gai-zerrendak) bi hizkuntza ofizialetan idatziko da.

Ekitaldiaren izaerak aldibereko interpretazioa eskatzen duenean, alde zehaztuko dira interpretazioan izango diren hizkuntzak, eta interpretazio-lana egiteko behar diren elementu materialez horniturik dagoen areto bat hautatuko da. Era berean, interpretazio-lana langile kualifikatu batek egingo du.

Udal-batzordeen xedea euskara denean, batzordearen lan-hizkuntza euskara soilik izan daiteke. Hala, eskatu egingo zaie udal-talde guztiei aipatu batzordeetarako kide elebidunak izendatzea. Hori posible ez balitz, batzordeburu edo batzordearen idazkariaren ardura izango da dagozkion baliabideak jartzea, euskara ez dakiten kideek hizkuntzaren aldetik arazorik izan ez dezaten.

Jendaurreko ekitaldiak

Barakaldoko Udaleko arloek antolatzen dituzten prentsaurreko, ekintza

Plenos y comisiones municipales

Se garantizará, en todo momento, el uso equilibrado de las dos lenguas oficiales en los Plenos municipales, así como en las diferentes comisiones que se convoquen.

Todo soporte comunicativo destinado a la convocatoria de Plenos y comisiones municipales (convocatorias y órdenes del día) estará redactado en ambas lenguas oficiales.

En caso de que la naturaleza del acto requiera del servicio de interpretación simultánea, se definirán claramente y de antemano los idiomas de interpretación y se dispondrá de una sala dotada con los elementos materiales necesarios para desarrollar esta labor, así como de personal cualificado para llevarla a cabo.

Cuando el objeto de las comisiones municipales sea el euskera, la lengua de trabajo podrá ser únicamente el euskera. De tal manera, se solicitará a los grupos políticos que para dichas comisiones designen vocales bilingües. En caso de no ser posible, será responsabilidad de la presidencia o secretaría de la citada comisión adoptar las medidas necesarias para que aquellos/as vocales que no saben euskera no tengan ningún problema lingüístico.

Actos públicos

Los responsables de las áreas municipales deberán especificar de qué modo se



instituzional, hitzaldi, mahai-inguru, jardunaldi tekniko, ikastaro, erakusketa eta abarren antolamendu fasean, hizkuntzak nola erabiliko diren zehaztu beharko du arlo edo atalaren arduradunak.

Euskararen erabilera ekitaldiz ekitaldi zehaztuko da, ekitaldiaren izaeraren eta hartzaileen hizkuntza-ezaugarrien arabera.

Oro har, ekitaldien hartzaileak euskaldunak direnean edo euren jarduera euskaraz gauzatzen dela jakina den kasuetan, ekitaldi horiek euskaraz egingo dira. Gainerako ekitaldietan bi hizkuntza ofizialen presentzia bermatuko da.

Jendaurreko ekitaldiei lotutako paperezko komunikazio euskarri oro (gonbidapenak, izena emateko orriak, programak...) bi hizkuntza ofizialetan idatziko da.

Barakaldoko Udalak euskara-gaitasun egokia duten pertsonak izendatuko ditu halako ekitaldietarako.

Ekitaldia kanpoko enpresa batek antolatu behar duenean, kontrataziorako baldintza-pleguetan aurretik aipatutako irizpideak jasoko dira.

Webgunea

Barakaldoko Udalaren webgunearen hasierako orria, era lehenetsian, euskarazkoa izango da. Orri horretan ikusgai egongo da edukiak gaztelaniaz eskuratzeko esteka.

Barakaldoko Udalaren eskumenekoak diren Internet sareko eduki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira. Dokumentu horien bertsio biak aldi berean argitaratu beharko dira.

utilizarán las lenguas en las fases organizativas de las ruedas de prensa, actos institucionales, conferencias, mesas redondas, jornadas técnicas, cursos, exposiciones y demás eventos organizados por las distintas áreas del Ayuntamiento de Barakaldo.

El uso del euskera será definido en cada acto, de acuerdo con las características del evento y de la audiencia destinataria.

Por regla general, cuando las personas receptoras sean euskaldunes o cuando desempeñen sus funciones en euskera de forma habitual, los actos se desarrollarán en esta lengua. En el resto de los casos, se deberá garantizar la presencia de las dos lenguas oficiales.

Todo soporte comunicativo relacionado con estos actos (invitaciones, hojas de inscripción, programas...) será redactado en ambas lenguas oficiales.

El Ayuntamiento de Barakaldo designará para participar en tales actos a personas con un adecuado nivel de euskera.

Cuando la entidad organizadora del acto sea una empresa externa, las cláusulas de los pliegos de contratación incluirán los criterios anteriormente mencionados.

Página web

La página inicial del sitio web dependiente del Ayuntamiento de Barakaldo estará predeterminada para su acceso en euskera. En esa página inicial se mostrará de forma visible el enlace correspondiente para acceder a los contenidos en castellano.

Los contenidos de titularidad del Ayuntamiento de Barakaldo en la red Internet deberán poder consultarse, como norma general, tanto en euskera como en castellano, de forma simultánea.



Edukiaren xedea euskararen erabilera bera sustatzea bada, euskara hutsean zabaldu ahalko da.

Herritarrei Internet sarearen bidez administrazio-tramiteak egiteko aukera ematen zaienean, tramite horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.

Kasu guztietan, testuen egokitasuna eta hizkuntza-zuentasuna nahitaezko baldintzak izango dira.

Gizarte-sareak

Barakaldoko Udalaren eskumenekoak diren gizarte sareetako eduki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira, aldi berean.

Argitalpen bakar batean eginez gero, testua euskaraz eta gaztelaniaz agertuko da, hurrenkera horretan.

Argitalpenaren xedea euskararen erabilera bera sustatzea bada, euskara hutsean zabaldu ahalko da.

Kasu guztietan, testuen egokitasuna eta hizkuntza zuentasuna nahitaezko baldintzak izango dira.

Mugikorretarako aplikazioak eta euskarri digitalak

Herritarrei zuzenduriko aplikazioak eta euskarri digitalak bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko moduan egongo dira. Euskara aukeratuz gero, komunikazio eta agiri guztiak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan bidaliko dira.

Cuando el objeto de la información sea el propio fomento del uso del euskera, se podrá difundir solo en euskera.

Siempre que se dé opción a la ciudadanía a realizar trámites administrativos mediante la red Internet, los mismos deberán poder realizarse tanto en euskera como en castellano.

En todo caso serán requisitos imprescindibles la calidad y corrección de los textos.

Redes sociales

Los contenidos de titularidad del Ayuntamiento de Barakaldo en las redes sociales se publicarán, como norma general, tanto en euskera como en castellano, simultáneamente.

En caso de que se haga una única publicación, el texto aparecerá en euskera y en castellano, en ese orden.

Cuando el objeto de la publicación sea el propio fomento del uso del euskera, se podrá difundir solo en euskera.

En todo caso serán requisitos imprescindibles la calidad y corrección de los textos.

Aplicaciones para teléfonos móviles y soportes digitales

Las aplicaciones y soportes digitales dirigidos a la ciudadanía podrán emplearse en las dos lenguas oficiales. Si se elige el euskera, se enviarán todas las comunicaciones y documentos en euskera o, en su caso, en ambas lenguas oficiales.



3.1.2. Herritarrekiko harremanak / Relaciones con la ciudadanía

Herritarrekiko harremana, ahoz

Barakaldoko Udalak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko du zerbitzua, betiere kontuan harturik solaskidearen nahia hizkuntza batean edo bestean aritzeko.

Herritarrari zerbitzua telefonoz edo aurrez aurre ematen zaionean, **gutxienez, euskaraz egingo da lehen hitza**, eta, ondoren, solaskideak hautatzen duen hizkuntza ofizialean jarraituko da, herritarrak hizkuntza ofizial biak erabiltzeko daukan eskubidea bermatuz.

Herritarren batek euskaraz ez dakien langileren bati euskaraz hitz eginez gero, langile horrek euskaraz artatu ahalko duen beste lankideren batekin jarriko du administratua harremanetan. Edonola ere, **herritarrari ez zaio inoiz eskatuko hizkuntza-hautua aldatzeko.**

Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (entzungailu automatikoz, telefono bidez edota bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira beti, hurrenkera horretan.

Herritarrekiko harremana, idatziz

Bi kasu aztertuko dira: Barakaldoko Udala dokumentu-igorlea denean eta hartzailea denean.

a. Erakundea dokumentu-igorlea denean, komunikazioa ele bietan egingo da. Nolanahi ere, idatziak euskara hutsean igorri ahalko dira herritarrak alde aurretik jakinarazi badu euskarazko komunikazioa lehenesten duela, edo euskara erabili badu Udalarekin harremanetan jartzeko.

Comunicación verbal con la ciudadanía

El Ayuntamiento de Barakaldo ofrecerá sus servicios en euskera y castellano, teniendo siempre en cuenta la opción lingüística del o de la interlocutora para comunicarse en una u otra lengua.

Se dispensará la primera atención, al menos, en euskera en los puestos de atención telefónica o presencial, y se continuará en la lengua que elija el o la interlocutora, garantizando el derecho de la ciudadanía a utilizar las dos lenguas oficiales.

En caso de que alguien se dirija en euskera a un/a trabajador/a que no lo hable, dicha persona pondrá en contacto al ciudadano o ciudadana con algún otro trabajador/a que sí pueda atenderle en euskera. No obstante, **en ningún caso se solicitará a la persona atendida que cambie su lengua de elección.**

Los mensajes orales sin destinatario/a conocido/a emitidos a través de contestadores automáticos, teléfonos, altavoces, etc., se difundirán en euskera y en castellano, siempre en ese orden.

Comunicación escrita con la ciudadanía

Es preciso analizar los supuestos en los que el Ayuntamiento de Barakaldo es el emisor de la documentación y aquellos en los que es el receptor.

a. En los casos en que la entidad sea la emisora de la documentación, la comunicación se efectuará en las dos lenguas oficiales. No obstante, los escritos podrán ser remitidos solo en euskera cuando la persona interesada haya manifestado su opción de mantener la comunicación en euskera, o cuando esta



Halaber, bide emango zaio hartzaileari erakundearekin ados jartzeko eta hizkuntza ofizial bietako baten aldeko hautua egiteko. Herritarrak Udalari jakinarazi, eta hautatutako hizkuntzan izango da komunikazioa handik aurrera, bestelako erabakirik hartu ezean.

b. Barakaldoko Udalak dokumentua jaso eta erantzun behar duenean, administratuaren hautua errespetatuko du beti:

- Gaztelaniaz jasotako idatziei gaztelaniaz edo ele bietan erantzungo zaie.
- Ele bietan jasotako idatziei halaxe erantzungo zaie.
- Euskaraz jasotako idatziei euskaraz erantzungo zaie.

Komunikazio telematikoak

Komunikazio telematikoak herritarrak hautatzen duen hizkuntzan egingo da, alegia, euskaraz zein gaztelaniaz. Horregatik, erakundeak bermatu beharko du dokumentu estandarizatuak hizkuntza ofizial bietako edozeinetan –edo ele bietan– lor daitezkeela.

Komunikazioa eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da bide telematikoak sorrarazten dituen ahozko eta idatzizko mezuak erabat argiak, ulergarriak eta anbiguotasunik gabekoak izatea, udal bulegoetatik kanpo dagoen herritarrak inolako laguntzarik gabe erraz ulertzeko modukoak.

haya utilizado el euskera para contactar con el Ayuntamiento.

Asimismo, se concederá al receptor o receptora la oportunidad de consensuar con el Ayuntamiento la posibilidad de optar por cualquiera de las dos lenguas oficiales. Bastará con que así lo indique para que dichas comunicaciones, en adelante y en tanto no se acuerde otra cosa, se efectúen en la lengua elegida.

b. En los casos en los que sea el Ayuntamiento de Barakaldo el que reciba la documentación y deba responder a la misma, se respetará siempre la elección del/la administrado/a:

- La documentación recibida en castellano se contestará en castellano o en formato bilingüe.
- La documentación recibida en formato bilingüe se contestará igualmente.
- La documentación recibida en euskera se contestará en dicha lengua.

Comunicaciones telemáticas

La comunicación telemática se realizará en la lengua elegida por el ciudadano o ciudadana, ya sea en euskera o en castellano. Por ello, la entidad deberá garantizar que los documentos estandarizados puedan obtenerse en cualquiera de las dos lenguas oficiales –o en formato bilingüe–.

Para que dichas comunicaciones sean eficaces, es imprescindible que los mensajes orales y escritos emitidos vía telemática sean diáfanos, comprensibles y carentes de ambigüedad, fáciles de entender sin necesidad de ayuda por parte de los ciudadanos y ciudadanas que no se encuentren en las dependencias administrativas.



Erreklamazioak jartzea

Herritarrek uste badute Barakaldoko Udalarekin dituzten harreman komunikatiboetan beren hizkuntza- eskubideak urratu egin direla, erreklamazioak jartzeko eskura dauzkaten mekanismoak jakinaraziko zaizkie (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua, Elebide, etab.).

Interposición de reclamaciones

En caso de que el ciudadano o ciudadana considere que sus derechos lingüísticos han sido vulnerados en sus relaciones comunicativas con el Ayuntamiento de Barakaldo, se le informará del procedimiento a seguir para presentar la correspondiente reclamación (Servicio de Atención Ciudadana, Elebide, etc.).

3.2. LAN-HIZKUNTZA / LENGUA DE TRABAJO

3.2.1. Barne harremanak / Relaciones internas

Barakaldoko Udalaren barneko komunikazio orokorrak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

Las comunicaciones generales internas del Ayuntamiento de Barakaldo se realizarán en las dos lenguas oficiales.

Horretarako, irizpide hauei jarraituko zaie:

Para la consecución de ese objetivo, se seguirán los siguientes criterios:

Barne-harremanak, ahoz

- Ahozko harremanetan euskararen erabilera informala normalizatzeko eta sustatzeko motibazio- eta sentsibilizazio-ekintzak eskainiko zaizkie udal-langileei.
- Euskaraz dakiten langileen arteko telefonozko eta aurrez aurreko lan-harremanetan, bultzatuko da lehen hitza euskaraz egitea eta, ahal den neurrian, komunikazioa euskaraz jarraitzea.
- Lan-bileretan, euskararen erabilera bermatzeko modua aztertuko da.

Relaciones internas orales

- Se ofertarán a los y las trabajadoras municipales actividades de motivación y sensibilización para normalizar y fomentar el uso informal del euskera en las comunicaciones verbales.
- En las comunicaciones tanto telefónicas como presenciales, se animará al personal con conocimientos de euskera a realizar el primer saludo en euskera y a que la comunicación continúe, en la medida de lo posible, en esta lengua.
- En las reuniones de trabajo, se analizará previamente la manera de asegurar el uso del euskera.



Barne-harremanak, idatziz

- Lan-komunikazio ofizialak (zirkularrak, intraneta, ohar- eta iragarki-taulak...) elebidun bidaliko dira, beharrezkotzat jotzen diren baliabideak erabilita.
- Langileek barne izapideak egiteko dauzkaten baliabideetan (aplikazioak, inprimakiak, erregistroa...), izapide horiek bi hizkuntza ofizialetan egiteko modua bermatuko da une oro.
- Lan-bileretan, euskararen erabilera bermatzeko modua aztertuko da alde zuzenetik, eta, gutxienez, bilera egiteko deiak eta gai-ordenak euskaraz eta gaztelaniaz idatz daitezela bermatuko da.

Hizkuntza-paisaia

Lan-inguruneari lotutako hizkuntza-paisaiako elementuek euskararen presentzia eta hizkuntza-zuzentasun egokia bermatuko dute, besteak beste, honako kasu hauetan:

- Behin-behineko errotulazio informala: oharrak...
- Errotulazio txikia eta orokorra: sarrera- eta irteera-guneak, igogailuak, arlo eta atalen izenak...
- Lan-arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa.
- Fotokopiagailuen, kafe- eta janari-makinen errotulazioa...

Relaciones internas escritas

- Las comunicaciones de carácter oficial (circulares, intranet, notas y tablones de anuncios...) se enviarán en formato bilingüe, empleando a tal fin todo recurso que se estime oportuno.
- Se garantizará que los recursos de que disponga el personal para la realización de trámites internos (aplicaciones, impresos, registro...) cuenten en todo momento con la posibilidad de trabajar en cualquiera de las dos lenguas oficiales.
- En las reuniones de trabajo, se analizará previamente la manera de asegurar el uso del euskera, y se promoverá que, al menos, las convocatorias y órdenes del día estén redactadas en euskera y castellano.

Paisaje lingüístico

Los elementos del paisaje lingüístico vinculados al entorno laboral garantizarán la presencia del euskera y la debida corrección lingüística, entre otros, en los siguientes casos:

- Rotulación ocasional e informal: avisos...
- Rotulación menor y general: zonas de entrada y salida, ascensores, denominaciones de áreas y departamentos...
- Rotulación asociada a la prevención de riesgos laborales y al medio ambiente.
- Rotulación de máquinas expendedoras de café y comida, fotocopiadoras.



3.2.2. Kanpo-harremanak / Relaciones externas

Barakaldoko Udalak euskararen erabilera sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden gainerako administrazio publikoekiko harremanetan eta euskara hizkuntza ofizial gisa duten lurraldeetan dauden edo euskarak ondore juridikoak dituen gainerako eremuetan kokatuta dauden administrazio publikoekiko harremanetan.

Ahozko komunikazioei dagokienez, Barakaldoko Udaleko langileek, ahal dela, euskara erabiliko dute administrazio euskaldunekin.

Euskaraz egin nahi dutela adierazi duten sektore publikoko erakundeei dokumentuak euskaraz bidaliko zaizkie.

Era berean, euskaraz jasotako idazki edo errekerimendu bati euskaraz erantzungo zaio.

Idazkia bi hizkuntzetan edo gaztelaniaz jaso bada, hizkuntza ofizial bietan edo batean erantzun ahal izango da.

Halaber, aurrerapausoak emango dira erakunde pribatuekiko, hornitzaileekiko eta bestelako entitateekiko komunikazioetan euskararen erabilera sustatzeko.

El Ayuntamiento de Barakaldo impulsará el uso del euskera en las comunicaciones con el resto de las administraciones públicas sitas en la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como con las administraciones públicas ubicadas en los territorios donde el euskera es lengua oficial o tiene efectos jurídicos.

En cuanto a las comunicaciones orales, el personal del Ayuntamiento de Barakaldo, en la medida de lo posible, utilizará el euskera con las administraciones euskaldunes.

Los documentos remitidos a entidades del sector público que hayan manifestado su voluntad de relacionarse en lengua vasca se cursarán en dicha lengua.

Asimismo, se utilizará el euskera cuando se trate de una respuesta dada a un escrito o requerimiento recibido en esta lengua.

Si el escrito se ha recibido en ambas lenguas o en castellano, se podrá responder indistintamente.

De igual manera, se darán pasos para promover el uso del euskera en las comunicaciones con las entidades privadas, proveedores y resto de entidades.

3.2.3. Prestakuntza orokorra / Formación general

Prestakuntza orokorra, ahal den guztietan, bi hizkuntza ofizialetan eskainiko zaie Barakaldoko Udaleko langileei, eta izena ematean, hizkuntza aukeratzeko aukera emango zaie.

La plantilla del Ayuntamiento de Barakaldo recibirá la formación, siempre que sea posible, en las dos lenguas oficiales, y podrá elegir la lengua de formación en el periodo de inscripción.



Langile guztiei aitortzen zaie prestakuntza euskaraz jasotzeko eskubidea. Hori horrela, langileen prestakuntzaz arduratzen den arloak neurri egokiak hartuko ditu prestakuntza hori bermatzeko.

Se reconoce a todo el personal el derecho a recibir formación en euskera. El área responsable de la formación de personal adoptará las medidas oportunas para garantizarlo.

3.2.4. Baliabide informatikoak / Recursos informáticos

Bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko prestaturik egongo dira udal-arlo eta zerbitzu guztietako programa informatiko orokorrak, bai eta berariaz sortzen diren programa edo aplikazio informatikoak ere.

Los programas informáticos generales y los programas o aplicaciones informáticas específicas de las áreas y servicios municipales deberán permitir trabajar en las dos lenguas oficiales.

Halaber, euskaraz lan egin nahi duten langileei aukera emango zaie euren ekipo informatikoetan itzultzaile neuronalak, zuzentzaileak, hiztegi-barrak eta era horretako baliabideak instalatu ahal izateko, euren eskubidea bermatu eta lana erraztu ahal izateko.

Igualmente, se dará opción a todos/as aquellos/as que deseen ejercer su derecho a trabajar en euskera a instalar en sus equipos informáticos traductores neuronales, correctores, barras de diccionarios y recursos de ese tipo, para facilitar su trabajo.

3.2.5. Sortze-hizkuntza / Lengua de creación

Itzulpen zerbitzuak itzuli eta zuzenduko ditu udal-arloetatik bidaltzen dizkioten dokumentuak, hala nola aldizkari ofizialetarako iragarkiak, oinarriak, deialdiak; webgunean argitaratzeko edukiak, prentsa-oharrak, egoitza elektronikoan agertuko diren eduki eta dokumentuak, zabalkunde handiko iragarkiak, udal-programazioak, jakinarazpenak, oharrak eta abar.

El servicio de traducción traducirá y corregirá los documentos que le envíen desde las áreas municipales, tales como anuncios para boletines oficiales, bases, convocatorias; contenidos para publicar en la web, notas de prensa, contenidos y documentos que aparecerán en la sede electrónica, anuncios de gran difusión, programaciones municipales, notificaciones, notas, etc.

Itzulpen zerbitzuak ez ditu udal-erakunde autonomoetako dokumentuak itzuliko, erakunde horien elebitasuna haiek berek bermatu beharko dute-eta.

El servicio de traducción no traducirá los documentos generados por los Organismos Autónomos Municipales, ya que serán ellos mismos quienes deberán garantizar el bilingüismo de sus entes.

Halaber, kontratatutako zerbitzuen ondorioz sortutako dokumentuei dagokienez, 2.4. artikuluan ezarritakoa beteko da. Hori horrela, ez dagokio itzulpen zerbitzuari kontratu baten bidez sortutako dokumentuak itzultzea.

Asimismo, en relación con los documentos generados en virtud de contratos administrativos, se estará a lo dispuesto en el artículo 2.4., no correspondiendo al servicio de traducción la traducción de los documentos creados en el marco de un



Edonola ere, itzulpengintzaren mendekotasuna arindu nahian, Barakaldoko Udalak Erabilera Planaren bitartez neurriak hartuko ditu arlo guztietan, pixkanaka-pixkanaka, langileek dokumentazioa zuzenean euskaraz ere sor dezaten:

- Behar besteko gaitasuna duten langileei idatzizko testuak sortzeko hizkuntza-trebakuntza orokorra eta pertsonalizatua eskainiko zaizkie.
- Euskara zerbitzuak, Itzulpen zerbitzuarekin batera, laguntza emango die arloei sarrien erabiltzen dituzten dokumentuen eredu normalizatuak eta formulario elebidunak sortu eta erabiltzeko.
- Udal langileek testuak euskaraz sortzeko eskura dauzkaten baliabideen –bereziki, itzultzaile neuronalen– jakitun izateko eta baliabideok behar bezala erabiltzen ikasteko trebakuntza berezitua eskainiko da.
- Langileak behar besteko trebakuntza jaso duen unetik aurrera, testuak zuzenean sortuko ditu euskaraz, Itzulpen zerbitzura jo gabe.

contrato.

En cualquier caso, con el fin de minimizar la dependencia de la traducción, el Ayuntamiento de Barakaldo, a través del Plan de Uso, adoptará progresivamente medidas en todos los ámbitos para que el personal elabore la documentación directamente en euskera:

- Ofertar formación lingüística tanto de carácter general como personalizada para la generación de textos a aquellas personas que tengan la capacitación suficiente.
- El servicio de Euskera, junto con el servicio de Traducción, prestará apoyo a las áreas para la creación y uso de modelos normalizados de los documentos más frecuentes y formularios bilingües.
- Ofertar formación especializada que permita al personal municipal conocer los recursos de los que disponen para la redacción de textos en euskera – principalmente, los traductores neuronales– y, por ende, aprender a utilizarlos de forma adecuada.
- Una vez que el o la trabajadora haya recibido la formación necesaria, creará sus propios textos directamente en euskera, sin recurrir al servicio de Traducción.



III.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK ETA DERRIGORTASUN DATAK EZARTZEKO IRIZPIDEAK

III.- CRITERIOS DE ASIGNACIÓN DE PERFILES LINGÜÍSTICOS Y FECHAS DE PRECEPTIVIDAD





Euskal Funtzio Publikoari buruzko 11/2022 Legean (187.5-6 art.) eta 86/1997 Dekretuan (7. art.) jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko beharrezko den gaitasun-maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntza-eskakizun dagokion.

Hizkuntza-eskakizun hauetako batzuk derrigorrezkoak izango dira, hau da, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea ezinbesteko baldintza izango da lanpostu horretan aritu ahal izateko. Derrigortasunak, Barakaldoko Udalak bete beharreko Derrigortasun Indizearen arabera ezarriko dira, eta indize hori Eustatek argitaratutako Erroldako edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehaztuko da, honako formula honi jarraikiz: **euskaldunak + (ia euskaldunak / 2)**.

86/97 Dekretuko 11. artikulua arabera, plangintzaldi bakoitzerako indizea kalkulatzeko plangintzaldiaren hasieran indarrean dagoen Erroldan jasotako azken datuak erabiliko dira.

3.1.- Hizkuntza-eskakizunak

Barakaldoko Udalaren lanpostuen hizkuntza-eskakizunak apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 13. atala eta hizkuntza-eskakizun bakoitzaren hizkuntza-gaitasunaren azalpena ematen duen dekretu bereko Eranskina kontuan hartuta daude ezarrita, eta horrelaxe ezarriko dira VII. plangintzaldian zehar, lanpostu berrien bat sortzen den bakoitzean.

Horretarako, Euskara zerbitzuak, lanpostu berriaren lan-funtzioak aintzat hartuta, hizkuntza-eskakizuna ezartzeko proposamena egin, eta ENBA batzordean

El Decreto 86/1997 (art. 7) y la Ley 11/2022 de Función Pública Vasca (art. 187.5-6) establecen que se determinarán los perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco de acuerdo con el nivel de capacitación lingüística necesario para desempeñar los mismos.

Parte de estos perfiles lingüísticos tendrá carácter obligatorio, es decir, será requisito imprescindible acreditar el perfil lingüístico correspondiente al determinado puesto de trabajo para poder ocuparlo. Las preceptividades se establecerán en función del índice de Obligado Cumplimiento que corresponda al Ayuntamiento de Barakaldo y dicho índice se determinará de acuerdo con los datos sociolingüísticos del Censo o Estadística de Población y Vivienda publicados por Eustat, atendiendo a la siguiente fórmula: **euskaldunes + (cuasi euskaldunes / 2)**.

El artículo 11 del Decreto 86/1997 señala que el cálculo de ese índice se efectuará a partir de los datos del último Censo o Estadística de Población y Vivienda publicados a la fecha de inicio del periodo de planificación.

3.1.- Perfiles lingüísticos

Los perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo del Ayuntamiento de Barakaldo están asignados en base al artículo 13 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, y al Anexo del mismo, en el que se describen las competencias lingüísticas de cada perfil; e igualmente se establecerán siempre que se cree algún puesto nuevo durante el VII periodo de planificación.

Para ello, el Servicio de euskera elaborará una propuesta de adjudicación de perfil lingüístico en base a las funciones del nuevo puesto, propuesta que elevará a la



aurkeztuko du.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren arauzko txostena eskatuko da, Euskal Funtzio Publikoaren 11/2022 Legearen 187.4 atalari jarraikiz eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak 23. atalean jasotzen duen bezala.

Azkenik, Udaltzaren oniritzia izanda, lanpostu berria Barakaldoko Udaltzaren lanpostu-zerrendan txertatu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratuko da.

3.2.- Derrigortasun-datak

VII. plangintzaldian Barakaldoko Udaltzaren derrigorrean bete beharreko indizea % 37,35koa, Eustatek argitaratutako azken Erroldako edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datuak (2021) aintzat hartuta.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak arautzen duena oinarri hartuta, eta laugarren atalburuan jasotzen duena osatuz, jarraian zerrendatzen diren irizpideak erabiliko dira Barakaldoko Udaltzaren derrigortasun-datak ezartzeko:

Jendaurreko izaera duten atalak:

Jendaurreko izaera duten lanpostu guztiei derrigortasun-data ezarriko zaie.

Gizarte izaerako atalak:

Atal bakoitzaren lan-funtzioak eta harreman-sarea hartuko dira kontuan derrigortasuna ezartzeko orduan.

Horrela izanik, atalaren jardura nagusia haurrei eta gazteei zuzenduta dagoenean, ataleko lanpostu guztiei ezarriko zaie

Comisión ENBA.

Posteriormente, se solicitará informe preceptivo a la Viceconsejería de Política Lingüística de Gobierno Vasco, tal y como se recoge en el artículo 23 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, y a tenor del artículo 187.4 de la Ley 11/2022 de la Función Pública Vasca.

Por último, con el aval del Ayuntamiento en Pleno, se incorporará el nuevo puesto a la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Barakaldo, y se procederá a su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

3.2.- Fechas de preceptividad

El índice de obligado cumplimiento del Ayuntamiento de Barakaldo en el VII periodo de planificación es del 37,35 %, a tenor de los últimos datos de Censo o Estadística de Población y Vivienda publicados por Eustat (2021).

Partiendo de la base de lo establecido en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, y completando el contenido del capítulo cuarto de dicho decreto, se aplicarán los siguientes criterios a la hora de asignar fechas de preceptividad en el Ayuntamiento de Barakaldo:

Unidades de atención al público:

Se asignará fecha de preceptividad a todos los puestos de atención al público.

Unidades de carácter social:

Se deberán tomar en consideración las funciones de los puestos, así como su red relacional, a la hora de establecer preceptividades.

Así, cuando la principal actividad de la unidad esté dirigida a la infancia y a la juventud, se fijarán preceptividades en



derrigortasuna.

Atalaren jarduera herritar guztiei zuzendutakoa denean, gutxienez, Udalari dagokion derrigortasun-indizea aplikatuko da (% 37,35).

Izaera orokorreko atalak:

Derrigortasun-datak jartzeko lehenetsua jendaurreko eta gizarte-izaerako atalek dutenez, izaera orokorreko atalen artean aztertu behar da lanpostuen herritarrekiko harreman-maila zenbaiterainokoa den derrigortasunak ezarri aurretik.

Izaera bereziko atalak:

Salbuespen-kasu bereziren bat ez bada, atal hauetan ez da derrigortasunik ezarriko.

Derrigortasun datak ezartzeko prozedura

Kasu guztietan, Euskara zerbitzuak lanpostuaren izaera eta lan-funtzioak aintzat hartuta, derrigortasun-data ezartzeko proposamena egin, eta ENBA batzordean aurkeztuko du.

Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren arauzko txostena eskatuko da, Euskal Funtzio Publikoaren 11/2022 Legearen 187.4 atalari jarraikiz eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak 23. atalean jasotzen duen bezala.

Azkenik, Udalbatzaren oniritzia izanda, derrigortasun-data lanpostuaren ezaugarrien artean txertatu, eta hala jasota geratuko da Barakaldoko Udalaren lanpostu-zerrendan. Beste edozein aldaketa bezala, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratuko da.

todos los puestos de trabajo de la unidad.

Cuando la actividad de la unidad se dirija a la población en general, se aplicará, como mínimo, el índice de preceptividad que corresponda a la entidad (37,35 %).

Unidades de carácter general:

Dado que la asignación de fechas de preceptividad se hará con carácter prioritario en las unidades de atención al público y en las de carácter social, entre las unidades de carácter general, previo a establecer preceptividades, se analizará el nivel de relación de dichos puestos con la ciudadanía.

Unidades de carácter singular:

Salvo algún caso excepcional, no se asignará ninguna preceptividad en tales unidades.

Procedimiento para la asignación de fechas de preceptividad.

En cualquiera de los casos, el Servicio de euskera elaborará una propuesta de adjudicación de fecha de preceptividad, en función de la naturaleza y funciones del puesto, y elevará la misma a la Comisión ENBA.

Posteriormente, se solicitará informe preceptivo a la Viceconsejería de Política Lingüística de Gobierno Vasco, tal y como se recoge en el artículo 23 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, y a tenor del artículo 187.4 de la Ley 11/2022 de la Función Pública Vasca.

Por último, con el aval del Ayuntamiento en Pleno, se incorporará la fecha de preceptividad al resto de características del puesto de trabajo, y así quedará recogido en la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Barakaldo. Al igual que cualquier otra modificación, este cambio se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia.



Derrigortasun-data lanpostuari esleituko zaio, eta inoiz ez langileari; hau da, lanpostuaren jabea aldatuta ere, derrigortasuna, lanpostu horren beste edozein ezaugarri bezala, bere horretan geratuko da, eta ezinbesteko baldintza izango da lanpostuaren jabe berriarentzat.

La fecha de preceptividad se adjudicará al puesto de trabajo, y nunca al ocupante del mismo; es decir, aunque varíe el/la ocupante del puesto, la preceptividad, al igual que el resto de características del puesto, permanecerá invariable y se convertirá en requisito imprescindible para el/la nuevo/a ocupante.



IV.- PLANAREN JARDUN EREMUAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZA PLANA

IV.- ÁMBITOS DE ACTUACIÓN DEL PLAN, INDICADORES Y PLAN DE ACCIÓN





KUDEAKETA GESTIÓN	ADIERAZLEAK INDICADORES
<p>EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA</p> <p>GESTIÓN GENERAL DEL EUSKERA</p>	<p>1. Erakundeak erabilera plana kudeatzeko sistema egituratua osatu du. La entidad ha generado un sistema estructurado para la gestión del plan de uso.</p> <p>2. Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da. Se realiza un seguimiento sistemático tanto del plan de uso como de los criterios lingüísticos.</p> <p>3. Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberitzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean. La entidad adopta medidas para incidir positivamente en la revitalización del euskera en el diseño, desarrollo y seguimiento de todas sus políticas públicas y ámbitos de trabajo.</p>
<p>LIDERGOA</p> <p>LIDERAZGO</p>	<p>4. Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute erabilera planaren diseinuan, garapenean eta jarraipenean. Los/as responsables políticos, así como el personal técnico, participan en el diseño, desarrollo y seguimiento del plan de uso.</p> <p>5. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten. Los/as responsables políticos y el personal técnico muestran una actitud proactiva para con el cumplimiento de los objetivos fijados en el plan de uso.</p> <p>6. Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan. Los y las responsables designados/as recogen los indicadores pertinentes, en los términos definidos en el plan de uso.</p>
<p>LANGILEAK</p> <p>PERSONAL</p>	<p>7. Langileei ematen zaie informazioa erakundeak erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten. Se informa al personal sobre el plan de uso y los criterios lingüísticos aprobados por la entidad, y todos tienen claro cuáles deben cumplir en sus funciones.</p> <p>8. Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte. El personal cumple los criterios lingüísticos que le corresponden.</p> <p>9. Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan. El personal participa en las acciones de promoción del uso del euskera definidas en el plan de gestión.</p> <p>10. Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz. El personal tiene una opinión positiva sobre la evolución del uso del euskera en la entidad.</p>



<p>HIZKUNTZA-GAITASUNA</p> <p>CAPACITACIÓN LINGÜÍSTICA</p>	<p>11. Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko. El personal es capaz de desempeñar sus funciones en euskera, de forma oral.</p> <p>12. Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko. El personal es capaz de realizar sus funciones laborales en euskera, de forma escrita.</p> <p>13. Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko. Los y las responsables políticos son capaces de desempeñar sus funciones laborales en euskera.</p>
<p>EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA</p> <p>COMUNICACIÓN DE LA ESTRATEGIA DE PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA</p>	<p>14. Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee. La entidad comunica a la ciudadanía y a los diferentes grupos de interés su estrategia de promoción del uso del euskera.</p> <p>15. Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du. La entidad participa en diferentes iniciativas con el fin de conocer y compartir otras experiencias.</p>
